

GIZARTE ZERBITZUEN ALORRA. EGUESIBARKO UDALA

HAURRENDAKO, NERABEAK ETA FAMILIENDAKO
ZERBITZUAK ETA JARDUERAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Nafarroako Gobernua finantzako



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGUESIBARRI
EGUESIBARKO
UDALA



GIZARTE ZERBITZUEN ALORRA. EGUESIBARKO UDALA

HAURRENDAKO, NERABEAK ETA FAMILIENDAKO ZERBITZUAK ETA JARDUERAK

UDAZKENEKO AISIA GUNEA

DATA: Ostiralero, urriaren 8tik abenduaren 17ra.

ORDUA: 16:30 - 18:30

LEKUA: FAZ eta Sarrigurengo kaleak eta plazak

EMAILEA: FAZko taldea

ADINA: 6 - 12 urte

LEKUAK: Edukiera mugatua

Erreferentziazko gunea da Eguesibarko haurrentzat, aisialdi osasungarriko hainbat jarduera egiteko; jolasak, tailerrak, ateraldiak, batukada, ginkanak, Haurren Eguna, belaunaldien arteko jarduerak, eta gure Ibarreko bizitza komunitarioan parte hartzeakoak. Zure zain gaude!!



IZEN-EMATEA

Izen-ematea irailaren **20tik urriaren 1era, FAZra deituz (948 165651)**. Lekuak zozketaz banatuko dira.

Segurtasun handiagoa talde egonkorren bidez eskaintzeko, **izen-emate bakarra eginen da hiruhilekoko ostiral guztietarako.**

ARGIBIDEAK: 948 165651

caf-faz@egues.es

ZATOZ, IKASI ETA JOLASTU

Ikasten eta jostatzen laguntzeko guneak dira, Haur Hezkuntzako 2. mailatik Lehen Hezkuntzako 6.era bitarteko haurrentzat, astelehenetik ostiralera, 16:45etik 18:45era, FAZn.

Iraupena: 2021eko urriaren 25etik 2022ko ekainaren 2ra arte.

Saioak: Astean 2 egunez; taldeak astelehen eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan.

Leku kopuru mugatua

IZEN-EMATEA

Lekua online eskatu behar da Udalaren webean, 2021eko urriaren 11tik 17ra.

Lekuak zozketaz banatuko dira.

Behin lekua eskuratuta, izen-ematea FAZn bertan gauzatu beharko da, urriaren 20tik 22ra. Horretarako, hitzordua eskatu behar da, 948 165651 deituz.

Zerbitzu-antolatzailea: FAZ eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Haur eta Familiendako Programa.

ARGIBIDEAK: 948 165651

caf-faz@egues.es

GAZTEENTZAKO ESKOLA - LAGUNTZA

DBHko 1. mailatik 4. mailara arteko ikasleei zuzenduta, Sarrigurengo BHIren instalazioetan, gazte programako taldeak lagunduta.

Egunak eta ordutegia: astearte eta ostegunetan, 16:30etik 17:30era.

Iraupena: 2021eko azaroaren 2tik 2022ko maiatzaren 31ra

Izen-ematea: urriaren 11tik 17ra www.valledeegues.com webgunean.

Eskaera plaza kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da.

INFORMAZIO GEHIAGO: juventud-gazteria@egues.es edo **628 742 765** telefonoan.

Gazteria arloak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek antolatuta eta koordinatzen dute.



“EL ARTE DE EMOCIONARTE”

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEEN

ALDEKO ASTEA

DATA Azaroaren 5etik 20ra

Berariazko jarduera-programazioa da Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Egunaren inguruan; aurten, esparrua osasun emozionalerako eskubidea izanen da.

FAMILIENDAKO ATSEDEN ZERBITZUA.

IKASTURTEA

DATA: Irailaren 8tik ekainaren 24ra

ORDUA: 09:15 - 13:15

LEKUA: FAZ (Urbasa k., 129)

ADINA: Urtebetetik (ibiltariak) 6ra.

LEKUAK: Mugatuak

Errespetuzko gunea, haur ibiltariak (1etik 6 urtera) beren erritmoarekin bat garatzeko, hainbat hezkuntza-testuingurutan jolasak eta errutinak eginez. Zerbitzua orduka kontratatzen da. Urte osoan zabalik, uztailean izan ezik.

IZEN-EMATEA

Hainbat erabilera modalitate: egunekoa, hilekoa edo astekoa. Galdetu FAZn bertan edo 686 299139 telefonoan.

PREZIOA: Modalitatearen arabera, euro 1 orduko, edo 2 euro orduko (50 ordu hileko, gehienez).

Badira tarifa hobaridunak.



HAUR ETA FAMILIENDAKO PROGRAMA

(OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA)

NOR GARA?

Talde bat gara eta kide hauek ditugu:

- 2 gizarte langile.
- 4 gizarte hezitzaile.
- FAZko taldea

ZER ESKAINTZEN DIZUGU?

- Entzute gune bat haurrak ardurapean dituzten familiendako; gune segurua eta orientabidea bilatzen dituzten gazteentzat, ...
- Laguntza emozionala familia-bizitzaren eta bizitza pertsonalaren biziaroetan.
- Hainbat baliabidetara joaten laguntzea.
- Hazkuntzari, nerabezarolari eta abarri buruzko zalantzak orientabide eta jarraibideen bitartez argitzea.
- Arrisku egoerei aurrea hartzea, eta haur eta nerabeen babesgabetasuna prebenitzea.
- Gazteen artean biziera osasungarriak sustatzea.
- Familiaren oinarrizko premiak estaltzeko eta haren ekonomia osatzeko prestazioak.

NOLA LAN EGITEN DUGU?

- Esku-hartzea eta baliabideak:
 - Esku-hartzea/babesa banaka, taldeka eta komunitarioa
 - Baliabideak:
 - Familiendako orientabidea
 - Familia-hezkuntza
 - Familia-bitartekaritzea
 - Aholkularitza juridikoa
 - Kontziliazio zerbitzuak
 - Haurrendako hezkuntza zerbitzua
 - Gazte programa.
 - Etab.
- Sarean lan egiten dugu. Hauekin:
 - Osasun Etxea.
 - Ikastetxeak.
 - Osasun Mentala. Haur eta Gazteendako
 - Osasun Mentala.
 - CASSYR. (sexu-heziketako zentroa)
 - Haur Eskolak.
 - Bestelako udal baliabideak.
 - Beste entitate batzuk.



NOLA JAR ZAITEZKE HARREMANETAN GUREKIN?

Hitzordua eskatuz Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko telefonoaren bidez: 948 33 16 50

HELDUENDAKO ETA ADINEKOENDAKO JARDUERAK

EGUESIBARKO DENBORA BANKUA (DB): "DIRURIK GABE DIHARDUEN BANKU BAKARRA"

DATA : Urte osoan eskaintzen da
LEKUA: FAZ
EMAILEA: FAZko taldea
ADINA: 18 urtetik gorakoak
LEKUAK: Ez dago leku kopuru mugaturik

INFORMAZIOA/DESKRIBAPENA

Inoiz pentsatu al duzu dirudik gabe egin daitekeen guztia? Zatoz FAZra eta ezagutu ezagutza trukatzearen bidez antolatua dagoen laguntza eta elkarlanerako sare hau! DBn, orok du balio berdina, hots, pertsona bakoitzak taldeko beste kide bati zerbitzu bat emateko baliatzen duen "denborak". Zerbitzu-eskaintza askotarikoa eta arras interesgarria topatuko duzu, bai eta bazkideendako talde jarduerak ere: tailerrak, solasaldiak...

IZEN-EMATEA: argibideak eta izen-ematea 679096147 telefonoan eta **btiempcaf@egues.es** helbidean.
PREZIOA: doan

TAILERRA: "ADIMEN EMOZIONALA LANTZEKO TRESNAK EGUNEROKO BIZITZARAKO"

DATA: Urriak 20 eta 27; azaroak 3 eta 10
ORDUA: 17:15 - 18:45
LEKUA: FAZ
EMAILEA: FAZko profesionalak
ADINA: Helduak
LEKUAK: 15

Dinamiken eta ariketa teoriko eta praktikoen bidez, behar diren trebetasunak eta tresnak eskuratuko ditugu bizitzaren egoera ezberdinetara era moldakorrean egokitzeko.

IZEN-EMATEA: irailaren 20tik urriaren 15era, FAZra joanez edo deituz (948 165651). Lekuak zozketaz banatuko dira. Izen-ematea tailer osorako da. Haurtzaindegi-zerbitzua eskaintzen da 1 eta 10 urte arteko haurrentzat. Izena ematen den unean eskatu behar da.

HELDUTASUN AKTIBOKO TALDEAK

Beste urte batzuetan bezala, jarduera taldeak antolatzen ari gara 60 urtetik gorakoendako. Argibideetarako eta izena emateko, deitu 948 165651 telefonora (FAZ) edo bidali e-mail bat oinarrizko gizarte zerbitzuko posta elektronikora:

autonomia@egues.es

